

**OROIMENA ELIZAN. FRANKOK
KENDU ZUEN GOTZAINA**

Kontzilio garaiko teologari batek, J. Baptiste Metz denak, bere lan interesgarri baten idazten du elizaren historia eta izaera, hiru hitzetan bildu daitekela: Erinnerung, Erzählung, Solidarität. Gomutapena, gomutapen horren kontakizuna, eta gomutapen horrekin hurrengo belaunaldien solidaritza. Gizadiaren historia ere horrelako zerbait da. Baina sarritan, larregi, oroimen hori ahaztu arazten saiatzen dira agintaritza dutenek. Ez da inolaz ere komenigarri eurentzat oroimen hori. Oroimen edo gomutapenak EGIA, JUSTIZIA, eta KALTEEN ORDAINA behar duela onartzen da. Horrelako baldintzak dituenean, erabilgarria eta mesedegarria da gizartearentzat, munduko edozein bazterretan. Baina gero hiru printzipio horiek betetzea, beste kontu bat izaten da.

Gure ingurura Europara begiratzen badugu, ahanztura nabarmenak ikusten ditut komunikabideen mailan. Hemen eta Espainako komunikabideetan nazismoaren sarraskiak aipatzen dira. Ikustekoa da esaterako 'Vocento' taldeko egunkariek behin eta berriz nola aipatzen dituzten sarraski horiek. Eta egiazkoak dira, bai. Baina beste gertakizun batzuk ezagutzeko liburu berezi batzuk lortu eta irakurri behar dira. Edo norbaitek bilatu behar ditu iturriak, ez delako erraza eskuratzea. Graf von Stauffenberg nor zen eta zer egin zuen irakasle batzuetatik kanpo, inork ez du ezagutzen gure artean. Alemanian uztailearen 20an bere oroimena ospatzen dute, baina ga-

rai hartako aliatuek, ez dute ezer ospatzen. Hitlerren kontra erasorik handiena antolatu zuen 1944an. Suberte txarra izan zuen, arratsaldean bertan bera eta laguntzaile mordo bat harrapatu eta goizaldean fusilatu zituzten. Gero gorpua erre eta errautsak Berlingo parke baten zabaldu zituzten. Bere seme bat Alemaniako armadaren jeneral izan da demokrazian. Pelikula bat egin dute amerikarrek konde honen bizitzan oinarrituta. Bere familiak ez zuen onartu película historiari asmakizun batzuk erantsi zizkiolako.

Nazien basatikerian artean konzentramentu itxidurak aipatzen dira, dokumentu eta paperetan ea denak biltzen zutelako naziek. Lidice-n (Liditxe) gertatutako sarraskia ere gogoratzen dute. Katedratiko ezagun batek 'El Diario Vasco' egunkarian gogoratu du orain dela hilabete batzuk. Edo Oradour-sur-Glane herrian egin zuten beste sarraski bat ere gogoratzen da. Hauek biak gerra garaian egindako sarraskiak dira, bata Txekian eta bestea Frantzian. Baina gerra bukatuta egin ziren beste sarraski batzuk ez dira gogoratzen, edo ez behintzat neurri berdinean, aurrekoak baino handiagoak izanda ere. Horiek Txekian gertatu ziren, Benes (Benex) presidente zela sudeteekin. Historikariek esaten dute 'enigma' bat zela gizon hau. Benex hau aliatuekin Londresen nazien aurka lanean ibili zen. Gerra amaitu eta atoa Txekiako presidente izendatu zuten, eta komunisten alderdiari ateak ireki zizkion, gobernu eskuratzeko. Berau agintari zela, Lanskron-en (Lanxkron) burutu zuten txekiar militar batzuk sarraskia sudetez betetako tren baten. Alemanian bai gogoratzen da, eta Txekian ere, baina hildakoen zenbakiak murrizago direla esanda. Gerra amaitu eta handik hila betera edo gertatu zen hau. Eta uda horretan beste sarraski hauek egin zituzten Txekian sudete izeneko alemaniar endakoak zirenen aurka, nahiz eta txekiar hiritarrak izan: Ausig, Postelberg, Glaserhan, Prerau, eta Brnotik Vienara bota zituzten 27.000 biztanleri. Hauek denak gizartearen kontrako krimenak ziren, eta Alemaniak oztupo bezala jarri zituen Txe-

kiak merkatu batura sartzea eskatu zuenean, baina Europak horrelako krimenak ahaztu egin zituen, merkatua eta sal-erosketak giza eskubideen aurrean jarritz. Espainarekin ere horrelako zerbait egin zuten, Frankoren diktadura guztiz ahaztuz. Coventryko bonbardaketak oroitzen dira, baina Dresderen bonbardaketa, ez hainbeste.

Bretaina Handiko almirante batek burutu zuen mendekuz eta 30.000 biktima sortu zituen. Egia bilatu behar da oroimena gizabidetik eraikitzeko. Frantziak ez ditu gogoratzen ‘harki’ deitutako algeriarrak, bere alde borrokatuz Algeriako gerran, odol ixurtze ikaragarria gelditu zutenean. Eta algeriarrek ere ez, Frantziaren alde borrokatu zutelako. Zerrenda hau asko luzatu daiteke. Eta gure artera itzuliz, oraintsu hasi gara, hemengo gerra zibileko irabazleek egin zituzten sarraskiak gogoratu eta biltzen. 1986an argitaratu zuten ‘Navarra 1936. De la esperanza al terror’ liburua Nafarroan Molaren agindupean egin ziren hilketa eta sarraskiak jasoz. 2.700etik gora herrietan hil zituzten, eta batzuk era basati baten torturatuz aurretik. Orain kopurua 3.300etik gora dioa. Gudaldietatik kanpo, badago zerrenda bat Bizkaia eta Gipuzkoarako, 2.100 fusilatutako kopurura iritxten dena. Santos Juliá eta kolaboratzaileek, 1999an argitaratutako liburuan, ‘Víctimas de la guerra civil’, izen eta abizenekin 72.527 fusilatu zenbatu zituzten 24 probintzitan, frontierik ez gudaldirik ez zegon lurraldeetan. Egia, justizia eta kalteen ordaina bilatu behar dira, gizarte zuzenago bat eraikitzeko. Baina oraindino bidea luzea da atzerriko egia ezagutzeko. Eta are gehiago hemengo gerra zibilaren eta ondorioen sarraskia egia argipean ezagutu eta begiratzeko.

Eta Elizak zer?

Elizak eredu eta bide izan behar zuen gerra zibil horretan, eta ez alde batekoen bedekatzaille. Eta are gutxiago, jakinik frankotarrek Jainkoaren izenean ikaragarritzko sarraskiak egiten

zituztela. Gomá kardinalak, Iruñan zegola ez ote zuen ezer jakin Nafarroan egiten ziren sarraskiei buruz? Egia da errepublikak, bera sortu eta aurrera eraman zuen demokraziari ez ziola egoki hazten lagundu, bai partidu batzuk eta bai sindikato eta indarra zuten beste talde batzuk kontrolatu ezinik zegolako. Eta talde horiek basatikeriak burutu zituzten. Baina horrekin ezin da zuritu bestaldekoek ixuri zuten odola eta ekarri zuten diktadura 40 urterako.

Horretan Hitler azkarragoa izan zen. Ez zuen gotzain bat ere hil. Innsbruck-en gotzainaren ordezkari zegoen bikarioa izan zen jerarkia mailan, hil zuen gorena. Karl Lampert zuen izena. Hiru juizio egin zizkioten eta hiruretan heriotz zigorra eman. Bigarrena izenpetzeko bezperan, sinatu behar zuen juezak honela idatzi zuen: ‘Kontua da “criminal” eta “asozial pertsona” bat dela. Baina bere delitu tragiko bakarra apaiz katolikoa izatea da’. Eta izenpetu gabe, juezak bere burua hil zuen. Hirugarren juizioan beste apaiz birekin heriotz zigorra ezarri irailan eta 1944ko azaroan gilotinaz hil zituzten. Gure artean askok erosten du ‘El Diario Vasco’. Seguraski ez dakite nola atxilotu zuten Aitzol egunkari honen hitzetan: ‘Y queda entre la redada de menor cuantía, este pez gordo que es Aitzol, el tristemente célebre curita Aitzol, energúmeno líder del nacionalismo separatista... que deshonoraba los hábitos sacerdotales. Mal español, mal vasco y peor ministro de Dios’. (1937-03-17) Egunkari honi ‘ahaztu’ zitzaion Aitzol eta beste pertsona mordo bat zetozen abioaren pilotoak Frankori saldu ziola bere burua, traizioa eginez E. Jaurlaritzari, eta lurra Zarauzko hondartzan hartuz, Lamiakoko aireportura joan ordez. Zain zeuden guarda-zibil mordoaren esku utzi zituen denak.

Orain gotzain bat gogoratu nahi dut. Batikanoko kontzilio bikainaren 50 urte betetzen dira. Gotzain honek parte hartu zuen. Frankok eta bere morroiak gezur eta kalumnia bidez Calahorra eta Logroñoeko elizbarrutitik kendu zuten. Fidel García Martínez da. 1880an jaio zen Soto y Amio Leongon herritxoan.

Comillasko seminario eta fakultatean egin zituen ikasketa guztiak. Apaiz sagaratuta Asturiasen pastoral lanean lehenengo Trubian eta gero Langreon, meatzarien artean egon zen. Hor laiko katolikoen erakundeak bultzatzen ditu. Palentziako kannonigo izan zen oposaketa bat gaudituta 1910an. 1921an Calahorrako administrari apostoliko izendatzen du Batikanok. Horretarako Erromara joan zenean zama hori ez emateko berari eskatzera, gotzain sagaratu zuten ‘Gesù’ jesuiten elizan 1921-04-26an. Izendapen horrekin Calahorra-Logroñoeko administrari apostoliko zeregina hartzen du. 1927an Batikanoak gotzain titular izendatzen du. Errepublikara garaian, ez zuen jarraitu beste gotzain askoren kutsu monarkikoa, berak esan zuen bezala.

1937an Gomá kardinalaren eskutitz entzutetsua izenpetu zuen, baina ba omen zituen zalantzak. Dena den atzerrian Espainako gotzain geheienek hartu zuten bidea iragartzeko lanean parte hartu zuen. Errioxan ez zegoen frontierik baina hilketak gertatzen ziren. Horren aurrean agiri ofizialik ez zuen atera frankotarren bortxakeriak salatzeke, baina badira testigantza batzuk kontatzen dutenak, saiatu zela bortxakeria horri mugak jartzen. Baliteke ez jakitea garbi zer gertatzen zen gerra zibilaren lehenengo bi urteetan, gero guztiz aldatu zuelako bere jokabidea. Lehenengo topekada frankotarrekin. 1938an izan zuen. Pio XIak ‘Mit brennender Sorge’ enziklika atera zuen, zuzenean nazismoa gaitzesten zuena argi eta garbi. Frankok galarazi zuen enziklika horren itzulpena argitaratzea eta gotzainek makurtu ziren agindu horretara, Gomáren aholkua jarraituz. Baina Fidel gotzainak ez zuen bete agindu hori eta elizbarrutiko boletinean osorik atera zuen enziklika hori. Menorkako gotzainak ere atera zuen, guztiz isolatuta zegoelako, errepublikarren menpean. Eta ‘Razón y Fe’ jesuiten aldizkariak ere atera zuen Batikanoaren aginduz. 1938an Parisera ere joan zen eta ostatuz ‘Misión Española’ zeritzan egoitzan gelditu zen. Han bazituen apaiz eta praile ezagun batzuk eta hauek ‘La voz

de Madrid' astekaria ateratzen zuten. Bazkarian eta solasaldietan iritxi batzuk azaldu zituen gerrari eta Frankoren errejimenerari buruz. Astekari horren batzordekoak hauek ziren: Antonio Machado, Victoria Kent, José Bergamín, Eugenio Imaz, Félix Pita Rodríguez, Luis Lacasa, Juan Larrea eta Ramón J. Sender. Ostatu hori klaretarrak eramaten zuten eta astekariaren zuzendaria Joaquín Aller klaretarra zen. Idazleen artean bazegon Ogier Preteceille bat, baina bere benetako izena J. David García Bacca zen, hau ere klaretarra. Honek entzundakoak nahasi, eta esandakoak eta asmatutakoak batera jarriz, Fidel Garcieren adierazpenak bezala atera zituen elkarrizketa forman. Gauza bat edo beste egia ziren. Esaterako Frankoren aldeko abioiek bonbardatu et kiskali zutela Gernika. Etxera itzuli zenean dei bi jaso zituen Fidel gotzainak. Bat Frankoren propaganda ministerizatik, eta bestea Constantino Bayle jesuitarengandik. Hau Frankoren aldeko boletín baten argitaratzailea zen eta Fidelek bidali zion eskutitz bat. Beste gauza batzuen artean hau idazten zion: '...al lado de alguna que otra afirmación, que pudieran parecer verosímiles, otras muchas son manifiestamente tendenciosas..' (Arizmendi, 179).

Dena den Fidelek beste gotzain gehienek bezain argi ez zituen ikusten gauzak. Baina hauek denak baino urrats handiago bat eman zuen. 1942n. Elizbarrutiko boletinean atera zuen 'Instrucción pastoral sobre algunos errores modernos'. Agiri honen muina zen frankismoa nazismoa bezalakoa zela. Hori Frankoren egitura politikoaren bihotzera erasotzea zen. Orduan Frankok eta bere laguntzaileek, aurrerago beste gotzain batzuekin hartutako bidea guztiz aldatu zuten. Vidal i Barraquer kardinalak ihes egin zuen Catalunya gobernuak lagunduta, anarkistek atxilotu zutenean Pobleteko monastegian. Italiara joan zen, baina gero Frankok ez zion utzi itzultzen Tarragonako bere gotzaindegira. Eta azken baten Batikanoak onartu zuen erabaki hori. Mateo Mujika bere bizitza mehatxatuz, kanpora bidali zuen eta Batikanoak hau ere onartu zuen. Batak ez

zuen inolaz ere egoki ikusten Gomáren eskutitza, eta ez zuen sinatu. Eta besteak ez zuen sinatu, eta horrela Euskadiko agintariek hartutako bidea ez zuen gaitzesten. Bide batez aipatu behar da beste hiruk ere ez zutela sinatu: J. Irastorza Loinaz Orihuelako-Alakanteko gotzain giputzak; Torres Riba, Menorkako gotzainak, eta Segura kardinalak, atzerrira bidalita zegoelako. Lehenengo errepublikako gobernuak bidali zuen, eta gero Frankok, baina itzuli zen bietan eta gotzain-kardinal bezala jarraitu zuen. Gainera Mujikak eta Vidal i Barraquerrek, Franko eta frankotarren bortxakerien berri bidali zuten Batikanora. Hau dena bikain argitzen du Hilari Raguer beneditarrak, 'La pólvora y el incienso' liburuan, 156-161 orrialdeetan. Fideleen txosten horrek 'Instrucción' izenekoak hedadura zabala izan zuen, munduko bigarren gerra garaian. Britaina Handiko 'Foreign Office' delakoak argitalpen bat egin zuen eta ingeles esparruan zabaldu zuen, batez ere EEBBetan. Gainera zabaldu zuten Frantzia, Mexikon, Arjentinan, Txilen, eta Turkia eta Hego Afrikan ere. Aliatuek nazismoari aurre egiteko erabili zuten txosten hori. European ere zabaldu zuten nazien aurkako borrokalarien artean. Nazien gobernuari min eman zion eta Batikanon zeukatzen anbaxadoreak, von Bergen-ek, bere gobernuaren arrenkura azaldu zion Estatu Idazkaritzari, E. Pachellicari. Eta oraindino gehiago. Jakob Gapp marianista bat zen, Austriatik Espainara bidali zutena nazien aurka hitz egiten zuelako bere homilietan. Balentzian eta Donostian egon zen. Eta hemen alemaniar izpi bi hurbildu zitzaizkion kristau egiteko asmoa azalduz. Konfiantza hartu zuen eta egun baten Hendaiara joan-etorri bat egitera komitatu zuten. Topotik jetxi eta atoan Gestapoko kide bik atxilotu eta Alemaniara eraman zuten. Juizioan ezarri zioten erruetako nagusiena, Fidel García gotzainak nazismoaren kontrako txostena zabaldu zuelakoa izan zen. Eta hori gorengo traizioa zela Alemaniaren aurka eta heriotz zigorra eman zioten. 1944an bete zuten zigor hori Berlinen gilotinaz. Gaur elizako doneen artean dago.

Gainera Fidel gotzainak 1947an Frankok jarri zuen ‘Ley de sucesión’ zelakoaren kontra idazti zuen. Eta beste liburu bat ere bai justizia banatzaileari buruz: ‘Observaciones económicas’: hor argitzen zituen hainbat gobernuaren hutsune ondasunen banaketan. Hori dena idaztea, pasukoka bazen ere, larregi zen Frankoren fazismoarentzat. Eta gotzain honen kasua, Frankok estatuaren iroldegietan ditzutenen esku utzi zuen. Hauek bazuten non ikasi eta zer ikasi hemen zebiltzan Gestaporen kideengandik. Eta heriotza soziala erabaki zuten, kalumnien bidez Fidel gotzainarentzat. Eta hemen hasten Fidel García gotzainaren kurutzebidea. Lehenengo Calahorrako falangistek zabaltzen hasi ziren, gotzaina gonazalea zela. Eraso zitalkeriz pentsatuta dago, gai hori jendearengana erraz irixten delako. Horretarako bere antza zuen itxuratzaile bat (doble gazteleraz) edo gehiago bilatu zituzten eta NAN delakoan Fidel Garcíaren izen abizenak eta beste bere dato pertsonalak jarri eta hor ibili ziren argazkiak ateratzen. Itzuratzzaile horri edo horiei lehenengo Bartzelonan atera zizkien argazkiak Majestic eta Ritz hoteletan. Copacabana kabaretean eta dantza lekuetan ezaguna omen zen 1945 baino lehenago. Beti agertzen zen argazkietan urdanga edo maripurtzil batekin, eta batzuetan, putetxe bateko jabearekin. Ofizialki bere amorantea omen zen. Horrelakoetan itxuratzaileen lana ordaindu izaten da, jakina.

Gero bidaiak eta argazkiak urrutiago ateratzen dituzte. Sibillan beltzaran batekin eta ilegorri batekin, zezenak ikusten, eta jai aretoetan. Bartzelonan ‘La Coronela’ zenaren etxean badu gela eta arropa aldatzeko tokiak. Parisen ere azaltzen da itxuratzzailea, aireportuetan ateratzen dute argazkilariek, eta abe-ratsen errestauranteetan.

Horrelako argazki batzuk zabalkunde handia duten komunikabideetan agertzen dira. Itxuratzaileak eta izpi zerbitzuak horretarako prestatzen dituzte gobernuak, eta ugazabak agintzen duenean, inolako arazorik gabe prestatzen dituzte froga faltsuak, torturak, pertsonen desagarkeretak eta horrelakoak. Es-

taduek dituzten iroldegientzat nahiko lan errazak izaten dira. Behin Rodríguez Sahagun ministroa Espainako CNI (Centro nacional de Inteligencia) erakundeak duen zentraleko eraikuntza ikustera joan zen. Eta atean agurtu zuen bere bikoitzak, izpi erakundeak prestatutako itxurazaille batek. Hau dena kontatzen du hurbiletik gotzaina ezagutu zuen pertsona batek. Antonio Arizmendi du izena eta Calahorrako gotzaindegiak, Fidel Garcíaren garaian zuen abokatuaren semea da. Agiri berezi batzuk ere atera ditu. Beste iturri bat historia hau ezagutzeko, M^a Antonia San Felipe Adán historialariak idatzi zuen tesia da: ‘Una voz disidente del nacionalcatolicismo. Fidel García Matínez, obispo de Calahorra y La Calzada (1880-1973)’. 2010aren amaieran aurkeztu zuen tesi hau ‘La Riojako’ unibertsitatean. ‘Instituto de Estudios Riojanos’ delakoan kide eta ikerlaria da. Arizmendik honela idazten du bere liburu horretako 64. orrialdean: ‘La primera vez que oí hablar del ‘doble’ de don Fidel fue por boca de mi padre que se lo había dicho Chalbaud’. Hau Logroñon zegoen jesuita bat zen.

Baina ondino gauza harrigarriago bat kontatzen du, Bartzelonan polizia baten ahotik berak entzundakoa. Behin itxurazaille hori putetxera joan zen. Beti bezala hango emakumeek txeratsu hartu zuten. Betiko maleta zeraman eta jakin nahi izan zuten zer zegoen maleta horretan. Hartu maleta, ireki eta dirua zegola ikusi zuten eta hartzen hasi ziren. Itxurazailleak Domund eguneko dirua zela esan zien, baina hartzen jarraitzen zuten. Orduan itxurazailleak esan zien: ‘Bueno, quedaos con el dinero, pero al menos dejarme dinero para pagar la propina de las toallas’. Hau dena eta beste dato batzuk argitaratu ditu Antonio Arizmendik liburu honetan: ‘Conspiración contra el obispo de Calahorra. Denuncia y crónica de una canallada’, 2008an aterata dagonean. 59-61 orrialdeetan dago. Liburuan bertan jartzen du ABC egunkarian, Fidel Garcíaren defentsan idatzi zuen artikukoa 19-10-1996an. Geroago ‘El País’

egunkarian ere beste artikulok bat atera zuten liburu hau argitaratu zutenean.

Baina historia ez da hor amaitzen. Bartzelonan ospatu zen nazioarteko Eukaristiaren Kongresua eta Espainako gotzain asko joan ziren. Fidel García ere joan zen. Eta hor azken kolpea prestatu zioten estatuaren iroldegian zebiltzan batzuk. Arizmendiren hitzekin jartzen dut. ‘El día del mes de junio del año 1952, en que se había celebrado el gran desfile del Congreso Eucarístico, durante el gran desfile le dieron un abucheo, insultándolo, unos falsos seminaristas, “agentes provocadores” mezclados entre otros auténticos, a don Fidel, el verdadero, vetido de pontifical. Por la noche asistió, ya vestido de paisano, uno de sus “dobles”, por supuesto al Copacabana, champán para celebrar el Congreso, con las chicas de la casa de la “La Coronela”, y naturalmente la madama’ (59-60 orrialdeak). Hila-bete bi beranduago idatzi zuen iroldegiko baten batek orrialde bat eta erdi. ‘Informe reservadísimo. Barcelona, 28 de agosto, 1952’ da orri horren izenburua. Parte hartu zuten joko zikin honetan Vallverdú batek eta ‘Patronato de Protección de la Mujer’ erakundeko lau kidek: Vidal-Bosch, Aragay, Colldeforns eta Matas. Txostentxo honetan putetxe baten harrapatu zutela, eta gero beste paragrafo bat jartzen dute. Honela dio: ‘Notas diversas. Al encartado Dn. Fidel García Martínez se le conocen sus andanzas mujeriegas anteriores a los años 1945-46, fecha en que conoció a la Vicky en otra casa de la calle de Rocafort, 124. Dio que hablar en el Hotel Majestic-Bar Diagonal. Otro escándalo en el año 1951 en el Hotel Ritz. Vino al Congreso Eucarístico del pasado mayo, asistiendo como Obispo a dichos actos religiosos, sin perjuicio que una noche de paisanao concurreo al Cabaret Copacabana, junto con la Viky (sic) y otras chicas jóvenes.... Todo este atestado obra en poder del Señor Obispo de Barcelona’. Arizmendi jaunak dokumento honen fotokopia jartzen du 161. orrialdearen aurrean.

Bartzelonako artzapezpikua Modrego Casáus zen, frankista ezaguna. Hau eta Eijo y Garay, Madrileko artzapezpikua, Frankoaren korteetan prokuradore ziren, 1943tik Frankok izendatuta. Eijo ‘Patronato’ horren buru zen Espaina osoan eta gainera Frankoren batzorde politikoko kide. Eta elizbarruti bakoitzean, gotzaina zen ‘Patronato’ horretako zuzendaritzako kide. ‘Patronato’ honek oso izen txarra zuen. Horren inguruan ba omen zegon ‘Patronato de Corrupción de la Mujer’ (Arizmendi, 75. orrialdea)

Modregok sinisitu egiten du paper hori eta Fidel Garcinari erakusten dio. ‘Es todo un montaje tan chapucero, que basta leer este informe para comprender, y más sabiendo los antecedentes de las campañas de calumnias para deshacerse de don Fidel, que tras lo que iban era a eliminar a don Fidel. Y eso no lo podía ignorar el arzobispo de Barcelona, cuando insultó a don Fidel pidiéndole que se defendiera. Que ni contestó. Dijo: “Aquí está mi renuncia”. (Arizmendi, 78. orrialdea). Seguruenik Modregok jakin zuen Fidel gotzainari atera zioten iskanbilla sasi-seminarista batzuk Eukaristiaren kongresuko prozesioan. ‘Sí sé lo que contestó don Fidel a Modrego: “Todo esto es por haber escrito la pastoral. No tengo que defenderme de nada. Si quieren ustedes mi renuncia, aquí la tienen”. Estas o parecidas palabras dijo. Nada más. Fue fiel a lo que había hecho desde el principio. Desde diez años antes. No se quiso defender en ningún momento’ (Arizmendi, 73. orrialdea). ‘A Modrego, el abucheo de los falsos seminaristas, en el gran desfile del Congreso Eucarístico, que actuando de agentes provocadores, metieron a seminaristas auténticos en el abucheo, le sentó como un tiro’ (Arizmendi, 77. orrialdea). Gero gotzain laguntzaile bat jarri zioten berak eskatu gabe, Abilio Del Campo y de la Bárcena. Honek 1960 inguruan Errioxako elizetako ondare artistiko gehiena belgiar iruzurgile Erik izenekoari 82 miloi pezetaren orde zion. ‘Erik el belga’ honek bere oroimen li-

buruan kontatzen du, gotzainaren izena jarri gabe. Baina jarrai dezagun On Fidelen historiarekin.

1952ko azaroan Calahorrako gotzaindegiko boletinean gotzain laguntzaile bat izendatu zutela agertu zen. Fidelek ez zuen eskatu, baina bera baztertzeko era bat zen. Abenduaren 6an sagaratu zuten gotzain Abilio hau. 1953ko urtarrilean etorri zen. Eta maiatzaren 9an, lau hilabete alkarren ondoan bizi ondoren, Fidel García gotzainak iragartzen du boletinean betiko uzten duela Calahorrako gotzaintza. Hitz leunekin hartu zuen laguntzailea, eta hitz leunekin agur esaten die eliztarrei. Anai bat jesuita zuen eta Oñara erretiratu zen. Han urte batzuk eman irakurtzen eta hausnartzen dogmatika eta zuzenbide kanonikoaren gaiak, eta gero Deustuko unibertsitatera joan zen jesuitekin bizitzen. Horra joan zitzaizkion 85 urte zituela Iturmendi, Frankoren justizia (¿) ministroa eta bere suhia Osorio, nolabaiteko kalteen ordainketa bat eskaintzeko. Ezetz biribila jaso zuten. Hau bera anaia jesuitagandik dakigu (Arizmendi, 57). Pauso hau emateko Frankok SIM (Servicio de Información Militar) zelakoari txosten bat eskatu zion, eta 1963ko amaieran guardazibileko buruzagi bati eskatu zion kontua argitzeko. Honek guardazibilen arteko kide aukeratu batzuk hartu eta Bartzelonako poliziarengana jo zuen. Han denek zekiten asmakizun bat zela. Eta hori jakinda, 1964ko urtarrilaren 30an Fraga Turismo eta Informazioa ministroarekin elkarrizketa bat du. ‘Nuevo y extenso despacho con Franco, sobre Ley de Prensa. Lo había leído y subrayado, estaba lleno de dudas; comprendía lo serio e irreversible de la operación. Hacía preguntas curiosísimas: ¿Qué haríamos si volviese a ocurrir lo del obispo de Calahorra? (un pequeño escándalo de faldas, en un hotel de Barcelona). A todo fui contestando como pude, haciéndole notar que los líos episcopales, en esta materia, eran realmente excepcionales’. (FRAGA IRIBARNE, M. *Memoria breve de una vida pública*, 99. orrialdea). Aipamen honen ondorioa izan zen Preston historilariak

egitza jartzen duela, bere Frankoroen biografian. Eslava batek ere aipatzen du, eta Campmany eta Raul del Pozo kazetariak era goitik beherako asmakizuna egitza hartu zutela. TV3 enpresak luxuriari edo lizunkeriarri buruz, asmakizun hori antzestu zuen 2006an. ‘Posiblemente si Preston hubiera consultado fuentes inglesas, hubiera encontrado rastros. A don Fidel le avisaron de la embajada inglesa que se estaba preparando un montaje contra él’ (Arizmendi, 56. orrialdea).

Gotzainek zertan dabilta?

Orduan ez zegoen gotzainen konferentziarik. Gotzainen zuzendaritza zuen ‘Junta de Metropolitanos’ deitzen zenak. Sei edo zortzi artzapezpiku eta kardinalen bat baldin bazegoen, batzorde horretako partaideak ziren. Junta horrek, buru Gomá kardinala zela, erabaki zuen ‘Mit brennender Sorge’ enziklikaren zati bat argitaratzea, ez osorik, Frankoren eskabidea betetzeko. Eta zati hori zen komunismoaren kontrakoa. Horixe bera zen Frankoren gogoia, hartu zuen bidea nazismoaren guttiz antzekoa zelako. Baina ez zuten argitaratu nahi nazismoaren kontrako zatia. Fidel gotzainak berriz osorik argitaratu zuen boletinean. Calahorran gero kardinal izango zen seminarista batek esan zuen: ‘Pero decían que era tan listo? A quién se le ocurre condenar a los alemanes’ (Arizmendi, 48. orrialdea). Seminarista horren izena Eduardo Martínez Somalo zen. Eta gero ez zuen pauso bat ere eman bere gotzainaren izen ona gordetzeko Batikanoko Estatuko idazkaritzan egonda ere. Eta kardinal Juan Pablo IIak izendatu zuenean ere ez. ‘Junta de Metropolitanos’ zelako horren kideak bazekiten Fidenten historia horren atalak ez zetozeela bat elkarrekin, eta nolako jokabidea hartu zuen frankismoaren aurrean. Baina ikusiz hartu zuten bidea euren erabakietatik, ontzat eman zuten guttiz faltsua zen salaketa bat, eta inolako dokumenturik oinarrian ez zuen erru bat, kalumnia eta gezur batzuk baizik. Aldizkarietan argazkiak ateratzeak bazuen indarra, baina ea egia zen hori dena ez aztertzea, ezin da

ulertu ez gaur ez orduan. Egia da gotzain denak frankistak zirela, eta apaizen artean %90a. Egia da ‘Los documentos del episcopado español hasta 1974’ begiratuta, ez zutela hitzerdirik ere esan 1936tik 1950ra arteko garaian, giza eskubideen era guztietako zapalketak salatuz. Calahorrako hurrengo gotzainek ere ez zuten ezer egin kontu hau garbitzeko. Arizmendiren ustez ixilpean gordetzeko zin bat egon zen ‘Junta’ horretako gotzainen artean. Nuntzioa Hildebrando Antoniutti zen eta honek ere ez zuen ezer egin arazo honen inguruan. Seguruena Erroman paperen batzuk egongo dira. Arizmendiren hitzak: ‘La iglesia española encantada del pacto de silencio. Hubieran quedado muy mal los cobardes obispos que consintieron que mataran civilmente a don Fidel. Los políticos, cristianos oficiales, de pata negra, no digamos. Con este silencio purificador se salvaba España y la Religión’ (57. orrialdea).

Fidel Garciaren benetako lan eta ekintzak

Baina Fidel gotzainaren ekintzak beste era batekoak izan ziren. Eta laikoek onetsi zuten bere pertsona eta bere lana. Logroñoeko plaza batek eta kale batek bere izena dute. Eta bere historia kristau laikoek argitu dute.

Elizbarruti gatazkatsua zen Calahorra. 1853ko konkordatoaren arabera, Logroño zen gotzainaren egoitza. Baina calahorretarrek ez zuten onartzen. 1892 aldatzeko susmoa zabaldu zenean, matxinada antzeko bat sortu zuten, eta gobernuak ‘gerra egoeran’ jarri zuen hiria eta Burgostik infanteria batailoi bat bidali zuten. (Arizmendi, 101). Ragonesi nuntzioak bazekien hori eta bidezko erabakia izanda ere Logroñon jartzea gotzainaren egoitza, bertako diputatuek oztopatzen zuten. Egoera horretan Ragonetik Fidel Garciaren pertsona guztiz egokitzen jotzen du elizbarruti horretarako, Erromara bialtzen du proposamena. Eta han onartzen dute. Comillasko teologi fakultatean ikasi zuen eta hango irakasleak pertsona egokitzen jo zuten ardura hori

hartzeko. Bere nortasuna adierazteko, Yanguasko artzipresteak hau idatzi zuen: 'Antes torcerá el Ebro su cauce que don Fidel su báculo'. Bere armarriko goi-ikurra hau izan zen: 'Omnia eta in omnibus Christus'. Gauza guztiak eta guztietan Kristo. 25 pastoral eskutitz idatzi zituen, gotzain izan zen 32 urtetan. Bere ikerketa teologikoak 580 orrialdeko liburu sendoa osatzen dute eta Gasteizko seminarioak argitaratu zituen, 1972an. Errioxako probintzia nahiko atzeratuta zebilen 1930an. %33 analfabetoa zen. Lurralde batzuetan oraindino hangiago zen kopurua baina beste batzuetan gutxiago. 1950an %5'86ra jetxi zen. Baina orain ere Ebro ibaiaren inguruan gorago zegoen beste lurraldeetan baino. Palentzian antzeko probintzia izanik, igandeko meza %30ek baino gutxiagok entzuten zuen. Cuenca, Toledo, Guadalajara eta Madrilen %5 joaten zen igandeko mezara. 1924an Errioxako probintziaren egoera antzeko zela diote. Igandean lan egiten eta biraoak botaten baziren ezagunak, gotzain honek behin baino gehiagotan idazkiak egin zituelako biraoaren kontra. Batzuetan indar politikoek laguntza ere eskatu zuen bi arazo hauek konpontzeko.

Elizbarrutiak zituen arazo nagusiak ondo aztertu zituen eta konponbideak bilatzen ere saiatu zen. Bat erlijio kulturarik eza zen. Horregatik errepublikak hartu zuen bidearen aurrean, eskoletan erlijioa erakusteko eta askatasuna irakaskintza pribatuarentzat eskatu zituen gotzaindegiko Boletinean behin baino gehiagotan. Bestalde konturatu zen apaizgaiek hezkuntza ona behar zutela, eta zegoen seminarioa ez zela inolaz ere egokia. Eta seminario berri baten beharrez zegoela azkar ikusi zuen. Lur sail egoki bat erosi eta orduko 3.500.000 pezetako aurrekontuarekin hasi zuen eraikuntza 1928ko apirilaren 25an. Pedro Bastida bilbotar arkitektoa hartu zuen eraikuntzarako. Eta kaperako margoak egiteko Bastidaren bitartez, Aurelio Arteta Errasti eraman zuen. Fatxadan dauden irudiak, Salbatzaiela eta Andre Maria, Quintín de Torre Berastegik landuak dira. Ez zituen hain gaziki aukeratu arduradunak eraikuntzarako. Gaine-

ra hauek hirurak Indalezio Prietoren lagunak ziren. Lortu zuen bukatzea eta ordaintzea nahiz eta udaletxeak oztupo batzuk jarri zizkion eta gotzaindegiko diruak ea agortuta gelditu ziren. Bere laguntzailerik hurbilenak apaizak ziren eta hauen ardura ere bazuen. Galdekizun zabal bat zuen apaiz bakoitzaren erantzuna eta egoera ezagutzeko. Eta bizi behar zutela jakinik, ordainket txiki batzuk jarri zituen sakramentu batzuk eta hiletak ospatzeko. Errepublika garaian moztu zituzten elizarekiko laguntzak eta bai Primo de Riveraren garaian eta bai Fernando de los Ríos Errepublikaren ministro zela, bakoitzak Fidel Garcia-ren eskutitz zentzuzko bat hartu zuen arazo hori bideratzeko.

Eliza erakunde autonomo bat da eta bere nortasuna deretxoaren aldetik ikusita, liburutxo baten azaldu zuen, 1938an: *Credo Sanctam Ecclesiam Catholicam. Naturaleza jurídica y derechos de la Iglesia*. 1954an beste argitalpenak egin zuen gai batzuk erantsita. Ez du onartzen Frankok eskatzen zuen eta geroago konkordatoan lortu zuen patronatoa. Orduko gotzainik gehienek onatzar hartu zuten politikaren eta elizaren arteko ezkontza hori. Gotzainek uste zuten kontrolatuko zutela diktadura, baina diktadurak eliza kontrolatu zuen. eta honek sinesgarritasuna galdu zuen. Fidel konturatu zen eta bere apaiz batzuk ere. Horregatik 1946an Logroñon egin zioten omenaldian, artzipreste batek argi aitortu zuen: 'Ferviente defensor de la libertad, inmunidad, soberanía y derechos de la Iglesia Católica, como Reino perfecto y sobrenatural de Jesucristo, contra toda especie de cesarismos y resabios liberales' (Arizmendi, 132).

Espainiako agintaritza politikoa eta gotzainak

1930n urtarrilean Primo de Riverak gobernua utzi, eta Parisera joan zen. Eta martxoaren 16an han hil zen. Erregeak hileta elizkizunak ospatzeko eskatu zizkion gotzainei. Eta Fidelek ere bere apaizei gomendatu zien egiteko 'donde aún no se hu-

bieran hecho, en la forma que las circunstancias mejor aconsejen'. (Arizmendi, 143)

Errepublikaren aurrean Batikanoak honelako oharra bidali zien gotzainei: '... que V. E. recomiende a los sacerdotes, a los religiosos y a los fieles de la diócesis que respeten los poderes constituidos y obedezcan a ellos para el mantenimiento del orden y para el bien común'. Gotzainek talde bitan banandu ziren. Bartzelonako Irurita, Tarazonako Gomá i Tomás; Segoviako L. Pérez Platero eta Gasteizko Mujika gobernuaren kontrakoak ziren. Segura kardinala kontra zegon eta pastoral bat idatzi zuen Alfonso XIIIren alde. Gobernuak esaktu zion Batikanoari Segura bialtzeko kanpora, eta berak dimititu zuen eta atzerrira joan zen. Eta Vidal i Barraquer, Ilundáin eta beste metropolitano batzuk, Pacellik, Tedeschini nuntzioari eskainitako elkarrizketako bidearen alde zeuden. Mujika ere errepublikak kanpora bidali zuen, istiluak errepublikar eta karlisten artean sortuko zituen bisita bat egitea erabaki zuelako. Gero itzuli zen eta Frankok bidali zuenean Batikanoak amore eman zion Frankoren erabakiari. Vidal i Barraquer kanpoan zegon errepublikatik ihes eginda, baina Frankok ez zion utzi inolaz ere bere elizbarrutira itzultzen. Kasu honetan Batikanoak ez zuen jarri ordezko gotzainik, Vidal hil zen arte.

1931ko maiatzean gauzak guztiz nahastu ziren Madrilen 6 komentu ezkertiarrek erre zituztenean. Egun berean Málaga, Sibilan, Cádiz eta Alakantean erre zituzten komentuak. Eta urriaren 14an konstituzioko 26. artikuloa onartu zuten parlamentuan, jesuitak kanpora bidaliz. Bestalde baziren politikari batzuk elakrriizketaren alde: Alcalá Zamora, Miguel Maura eta sozialisten zati bat. Baina Segurak egindakoak eta Justo Etxeguren, Gasteizko bikario orokorrari harrapatu zizkioten papearak, oztopo handia jarri zizkien elkarrizketarako. Etxegureni harrapatutako paperek esaten zuten desjabetze legeren bat praile eta mojentzat ateratzen bazuten, itxurazko salmentak egin behar zituztela. Eta ondasun mugikorrek in zor publikoa

erosteia komeni zela, baina ez Espainiakoa, Britaina Handikoa edo Frantziako baizik. 'Junta de Metropolitanos' zelakoak konstituzioa indarrean jarri zenean eskutitz sakon bat idatzi zuten. Honelakoak esaten zituen: 'En el orden estrictamente político, no se debe en manera alguna identificar ni confundir a la Iglesia con ningún partido, ni utilizar el nombre de la religión para patrocinar los partidos políticos... La abstención y la oposición a priori son inconciliables con el amor a la religión y a la patria. Cooperar con la propia conducta o con la propia abstención a la ruina del orden social, con la esperanza de que nazca de tal catástrofe una condición de cosas mejor, sería actitud reprobable, que por sus fatales efectos se reduciría casi a traición para con la religión y la patria...Y cualesquiera que fuesen las afflictivas circunstancias en que veamos sumergida a la Iglesia, no temáis no pretendáis ejercer la vindicta que solo al Señor corresponde. Recordad que la iglesia vence el mal con el bien'. (R. MUNTANYOLA, *Vidal y Barraquer. El cardenal de la paz*, pp. 461-479). Fidelek oharrak bidali zituen. 'Es mi deseo que el documento salga perfecto, ya que por lo demás me ha gustado extraordinariamente de fondo y de forma' idatzi zion Vidal i Barraquer kardinalari. Unamunok ere gotzainek idatzitakoen artean azken gizaldian, hauxe zela bikainena idatzita utzi zuen.

'Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián'. Ekintza hau Mateo Mujika goitzainak sortu zuen 1934an. Baina Frankoren matxinadak moztu zituen beste ekintza eta egitasmo asko bezala. 1947an munduko II gerra bukatu eta urte bira, Carmelo Ballester goitzainak berriro suspertu zuen egitasmo hori eta Gasteizko elizbarrutiko boletinean iragarri eta ofizialtasuna eman zien topaketa hauei. Eten motx bat eginda, Carmelo Ballester goitzain izendatu zuen Batikanoak 1938ko martxoaren 17an, Frankok eta bere gobernuak ezer jakin gabe. Irailean ospatzen ziren, aste betean. Batikanoak eta Atzerriko ministeritzak ondo ikusita zeuden eta nuntzio etor-

tzen zen hasierara eta amaierara. Euripako atearak itxita zituen eta horrelako ekintzak lagungarri zitzaizkion Frankoren erregimenari.. 1948an gaia izan zen: 'Derecho y deberes de la persona humana en la sociedad civil según las doctrinas de la Iglesia'. Helburua hau zen: Gizakien eskubideen eta betebeharren zerrenda bat aurkeztu nahi zuten eliza katolikoaren dotriñaren arabera. Ez zuten amaitu, eta hurrengo urterako gai honen jarraipena eta eta beste gai bat aztertu zuten: 'El dirigente de opinión y la armonía entre los pueblos'. Batez ere gizakiaren ekintza intelektul eta moralen eskubideak formulatu nahi zituzten.

Eta era berean zenbateraino baliagarriak ziren elizaren majisteritzak erakutsiatakoak Gregorio XVItik Pio XIIren maisutzara arte. Euskalerritik Karlos Santamariak parte izan zuen geroosteko topaketa guztietan. Parte hartzaileak frantziarrak, belgiarrak eta italiarrak ziren. Baina bazeuden Britaina Handikoak, alemaniarak, poloniarak eta beste batzuk. 'El Diario Vasco' egunkariak eman zuen Jardunaldi hauen berri. Eta interneten ere badago berri asko ekintza honi buruz. Ikus: www.gipuzkoa.net-kultura-cultura-euskara-stmaria. Batez ere Lehen Kritika: F. Garcia atalean. 1950-51ko jardunaldietan partaidetza txikiagoa izan zuen. 1952an gaia hau izan zen: Eficacia temporal del cristianismo. Zuzendaritza taldean Albino G. Menéndez Reigada gotzaina ere sartu zuten. Bi jokabide zeuden gai honetan: Maritain-en aldekoak eta kontrakoak, jakinik filosofo hau gerra garaian eta gero frankismoaren kontrako sendoa izan zela. Fidelek bide bien artean zubi bat eraiki nahi zuen. K. Santamaría jardunaldietako idazkaria zen eta aukeratutako hizlarien zerrenda hau utzi zigun: 'P. Ramírez, O.P., el obispo de Córdoba, don Leopoldo E. Palacios, don Eugenio d'Ors, don Juan Zaragüeta, don Rafael Calvo Serer, don Raimundo Pániker, don Pedro Laín Entralgo, los obispos de Barbastro, Calahorra y Vitoria (José M^a Bueno Monreal), don José Luis López Aranguren y don Angel González Alvarez. Por la

parte francesa, Jacques Maritain, Gabriel Marcel, el P. Congar, y Jean Lacroix, que representaban el ala izquierda; Mons. Blanchet, el R. P. Dubarle y Jean de Fabrègues, que serían el centro'. (Arizmendi 210-11 eta aipatutako internet). Baina oraingoan arazoak ez ziren etorri gobernuaren aldetik, gotzainen aldetik baizik. 'Junta de metropolitanos' horrek batzorde bat jarri zuen jardunaldi hauek bideratu, kontrolatu, eta askatasun haizeari atek ixteko. Batzordeko partaideak hauek ziren: Albino G. Menéndez, Córdobako gotzaina; Gasteizko gotzaina José M^a Bueno Monreal; Bilbaoko gotzaina Casimiro Morcillo eta Huelvako gotzaina, Pedro Cantero. Hauek biak frankista ezagunak. Gotzainek ez zuten eskuartzerik eztabaidetan. Teologo batzorde batek iraztontzi lana egin behar zuen gaietan eta hitzaldietan. 1959an controla areagotu zuten eta Metropolitanoen Junta horrek baietza eman behar zien hizlari guztiei. Hasieratik zegoen gotzainen talde babeslea ere ez zela beharrezko erabaki zuten. Fidel García frankiosmoaren kritikoak ziren pertsonaien artean gelditu zen.

Arazo sozialak eta elizaren irakaskintza soziala. 1950an oraindino Calahorra-Logroñoko gotzain zela, liburutxo bat idatzi zuen: 'Observaciones económico sociales a nuestros obreros de la HOAC'. Beste gotzain batzuk gizaratean eta administrazioan zegoen ustelkeria saltasen zuten. Fidelek sustraira jotzen du: ekoizpena. Ekoizpenak gehitzen du banatu behar den pastela. 1951an errenta 'per capita' deitzen dena ez zen irixten 1929an Espainial zeuka errentara. Ekoizpenean hiru partaide nagusi daude: langileak, kapitala eta estadia. Lehenengo biek ongizate amankomuna lortzeko ahaleginari ekin behar diote. Baina batez ere estadia, arantzelen politika, zergen politika, kreditoa, eta monetaren politika bere esku dituelako. Eta lehenetsunak erabakitzen dituelako. Eta adibide batzuk aipatzen zituen: inflazioa ez zaintzea; edo burokrazia astunegia. Eta hemen sindicato bakarraren kostua aipatzen zuen, beste sindikato batzuk helburu berdina lortzen zuten bitartean, gasturik ga-

be. Hau politika egiturari kritika zuzena zen. Eta beste adibide bat aipatzen zuena, armadak diru larregi hartzen zuela, bizitza etxean beharrizan gorria zegon bitartean.

Oñako erretiroan bere lan teologikoarekin jarraitu zuen. Eztabaida sortu zen teologoaren artean fedeari buruz. Lennerz eta Aldama jesuitek esaten zuten fede mota bi zeudela: bat Jainkoak zuzen iragarritako egientzat, eta bestea elizak geroago jarri zituen dogmentzat. Fidelek berriz uste zuten fede bakarra zegola, egia guztiak Jainkoarengandik zetozelako. ‘The American Ecclesiastical Review’ aldizkarian Fidelekin tesiaren alde azaldu ziren. Geroago ere gai honetan Fidelekin iritziaren balio onartu zuten (Arizmendi, 227). Batikanoak onartu zuten Fidelekin Calahorratik aldentzea, baina bestalde 1962an keinu txiki-
ren bat egin zuen bere alde. 1946an baziren hiru azpibatzerde ‘Junta de Metropolitanos’ horretan zuzenean nuntzioaren agindupean zeudenak. Hauek ziren: ‘Asuntos económico-jurídicos’, eta honen partaide Fidel García zen; Seminarioena, eta hirugarrena, Erligio irakaskintza eta Katekesia. ‘Junta de Metropolitanos’ horrek 194an berretsi situen azpibatzerde horetako partaideak. Eta beste berri bat sortu zuten, ‘Hispanica Gens’ izeneko, atzerrian zeuden espainiarren ardura hartzeko. Eta hemen ere sartu zuten Fidel, Javier Lauzurikarekin batera. 1952an ezabatu zuten azpibatzerde hau. Eta hurrengo urtean, ‘Asuntos económico-jurídicos’ azpibatzerdetik ere kendu zuten. Baina 1962an berriz sartu zuten azpibatzerde honetan. Gotzainek ere keinu txiki honekin Iturmendi eta bere suhiari lagundu nahi ote zioten, Fideli aurreko zerrikeria garbitzeko plantak eginda?

Fidel García eta Vatikanoko II Kontzilioa

Fidel gotzaina zen eta beste gotzain guztiak bezala, deia jasoz zuen parte hartzeko. Eta zorionez Espainiako gotzain guztien artean nabarmendu zen. Cirarda gotzainaren esaldia aipatzen da gotzain hauen argazkia ematen duena: ‘habían ido

a Roma con la mitra y el báculo por todo bagaje'. (J. M^a LABOA, 'Los obispos espaloles en el Concilio', Anuario de Historia de la Iglesia, 2005, 29-30 orrial.). Baina beste sustrai kaltegarri bi ere bazituzten: Erromaren morroi ziren alde batetik, autonomiarik gabe, eta bestetik frankismoarekin elkartuta zeuden gehienak. Aita santuaren eta Batikanoaren kontrako ekin-tza bat ikusten kontzilioa, eta hauek defentsan jarri ziren. Ordenu batzorde bat sortu zuten, gotzainen hitzaldiak kontrolatzeko, eta buru Morcillo zegon. Baina hauen txostenak ez ziren batere aberasgarriak. Jesús Iribarren, apaiz arabarrak kontatzen du gertatzen zitzaiena argi eta garbi. 'El prestigio de los españoles no está alto', 'sus intervenciones en el aula no son excesivamente brillantes. En los últimos días han abucheado a uno, han invitado a sentarse a otro y han abandonado en grandes grupos a un tercero para irse al bar mientras hablaba'. Batek Iribarreni esan zion: 'No hacemos sino recibir palos'. (J. IRIBARREN, Papeles y memorias. Medio siglos de relaciones Iglesia Estado en España, 1992, 237. orrial etabar). J. M^a Laboak idazten du: 'Fidel García mantuvo a lo largo de las sesiones una postura autónoma y llena de sentido común'. (J. M^a. LABOA, 'Los obispos españoles en el concilio Vaticano II, Miscelánea Comillas, 1993, 81. orial.; eta Anuario de Historia de la Iglesia, 2005, 38. orrial.). Iribarrenek ez du aipatzen Fidel García, behar bada, bere kontrako zurrumurruen berri zuelako. 9 bider bere txostena irakurri zuen, 5 lehenengo kontzilioaren atalean; 3 bigarreanean, eta baten azkenekoan. Gainera idatzitako hiru proposamente aurkeztu zituen, bakoitza bere txosteanekin. Berau izan zen lehenengo gotzain espainiarra kontzilioan hitzegiten. Liturgiaren dekretua idazteko ekarri batzuk egin zituen. Bat: Dekretuaren edukia gordez, laburpen bat behar zuen; bi, elizak erlikiak aztertu behar zituen, funtsik gabeko batzuk betirako baztertzeko, esaterako, basamortuko mana ale batzuk, Aaronen makilaren espal batzuk, Andre Mariaren esne tantaren bat etabar. Euskaristia ospatzeko zeremoniak

arintzeko proposamen batzuk ere egin zituen: apaizak ogi eta ardoari egiten zizkion bedeinkapen batzuk kentzea, eta jantzian, amitoa eta manipuloa kentzea. (Acta Synodalia sacrosancti Concilii Vaticani Ildi, Periodus I, vol I, n° 16, 332. orrial., eta n° 8, 579-80 orrial.)

Jainkoak bere mezua iragarri du Idazki santuen bitartez eta tradizioaren bidez. Baina azterketarako dokumentua Ottaviani eta Erromako kuriak egina zen. Espainiako gotzainak eta Italiako asko honen alde atera ziren. Batikano Iaren jarraipen bat bezala antolatu zuten Ottaviani kardinalak eta kuriakoek. Baina bozketan gehiengo handi batek ez zuen onartu. Eta batzorde teologikoak eta kristauen batsunerako idazkaritzak beste dokumentu bat prestatu zuten. Hau onartu izan zen eztabaidatzeko 1963an. Eta horrela jasotzen zituzten oharrekin beste dokumentu bat prestatu zuten eta gotzainei bidali zien 1964ko martxoan. Gotzainen oharrekin laugarren zirriborroa prestatu zuten eztabaidarako. Geroago kontzilioko batzarretan gotzainek egin zizkioten oharrekin, 2099k onartu zuten, 2146ren artean. Eduardo Vadillok aztertu zuen Fidelen txostena. Hau zen bere asmoa: 'una mayor precisión acerca del objetivo del magisterio infalible', pero 'dicho votum tuvo el papel, al menos de llamar la atención sobre la imprecisión del texto de la *Lumen gentium* y precisar la cuestión del objeto del magisterio infalible'. (E. VADILLO R., 'La actualidad de una interención española en el Conc. Vaticano II', *Toletana*, 2003, 21-44) Luis GAHONAK ere aztertu zuen Fidel Garciaren pentsakera punto honetan: *Toletana. Cuestiones de Teología e Historia*, 2006, 384-387 orrial.

Baina desberdintasun handiena Espainako gotzainekin, Erlijio askatasunari buruzko dekretuan agertu zuen. 1954an Credo sanctam Ecclesiam liburutxo bat idatzi zuen eta hor lehenengo pausoak ematen ditu benetako erlijio askatasun baten bila. 1956an gotzainek bultzatuta, gobernuak teologi seminario protestante bat itxi zuen Madrilén. Eta urte horretan bertan 30.000

Biblia Britaina Handiko Batzorde Biblikoak argitaratuta, gobernuak bahitu zituen, gotzainek eskatuta. 1964an Frankoren Atzerriko ministeritzarekin araudi bat negoziatu zuten ‘Confesiones disidentes’ deitzen zituztenei jartzeko euren eskubideak moztuz. Gotzainek aldetik Pla y Deniel, Alonso Muñozerro eta Morcillo izan ziren partaideak. Espainiatarren erlijio batasuna zaindu nahi zuten (¿). Fidel gotzainak garai beretsuan ‘Razón y Fe’ aldizkarian honelako hitzak idatzi zituen: ‘¿Qué habrá de hacer en ese caso ese hombre de sincera voluntad, pero equivocado en el juicio? La respuesta no ofrece duda alguna para el teología católica: seguir el dictamen de su conciencia’. (Razón y Fe, 1964, 453-474). Frantzierara itzulita banandu zuen kontzilioan. Txostenak multikopiaz atera eta gotzainen artean banatzeko ohitura denek erabiltzen zuten kontzilioan. K. Rahner-en biografiakoez kontatzen dute, batzuetan berak egin txostena eta berak ateratzen zituela kopiak multikopiagailu baten, gero banatzeko. Eta eragina izan zuen, Fliche-Martin zuzendarriaren *Historia de la Iglesia* liburuan, XXVIII tomoan Robert Rouquette-k aipatzen duen bezala. Juan XXIIIren ‘Pacem in terris’ enziklikak eragin handia izan zuen Fidelengan, eta dokumentu hori izan zen bere oinarria ondorio batzuetara irixteko.

Garaiko gotzainek, oroimena eta egia

Hemen laburbilduta dagon historia, eta batez ere, A. Arizmendi eta M^a Antonia San Feliperen lanak irakurrita, lehenengo galdera hau da: Zergatik ‘Junta de Metropolitanos’ delakoa ez zen atera Fidel Garciaren defentsan? Eta gorago joanda, nola jokatu zuen nuntzio zen Hildebrando Antoniuttik honen aurrean? Gotzainen Junta horren buru Pla eta Deniel kardinala zen. Hau Gomá baino frankistagoa zen. Beste juntako gotzainak ere antzekoak ziren. Dotrina aldetik Espainako gotzainik gehienak prestakuntza teologiko eskasa zuten. Hori XIX gizalditik zetorren. Casimir Martík idatzi zuen lan baten argi gelditzen da: *Del syllabus al Vaticano II*, S. M., 1995. Bestalde eliza-

ren jerarkiak epaitzen ditu arazo historikoak, berak jerarkiak, eta laguntzaile zuzenak (apaiz, praile eta mojak) jasaten dutenaren arabera, ez gizarteak hartzen duen tratuaeren arabera. Errepublikak ez zuen indarrik izan era desberdinetako anarkismoa kontrolatzeko. Eta hortik sortu ziren komentuar erretzea, eta apaiz, praile eta mojen hilketak, Frankok gerra hasi zutenean errepublikaren gobernuaren kontra. Antonio Montero, gero gotzain izango zenak, 14 gotzain, 4184 apaiz, 2365 praile eta 283 mojarren izenak jaso zituen. Frankistek afusilatu zituztenak ez zituen kontatu. Bestalde Franko, joko zitala eginez, elizaren defendatzaile lez azaldu zen Batikanoaren aurrean eta gotzainen aurrean. Gertakizun horien indarrez, eliza jerarkikoa, Frankoren alde jarri zen. Jerarkiak frankisten odol ixurtze batzuk jakin zituzten, baina begiak itxi edo beste alde batera begira jarri ziren.

Ez zekiten frankistek Bizkaia eta Gipuzkoan 2100 gora afusilatu zituztela 1936 eta 1943 bitartean, orain gutxi egindako zerrenda batek dionez. Baina bai han, hor eta hemen batzuk afusilatzen zituztela, frontea ez zegoen herrietan. Napparroan ez zuten jakingo 3200dik gora hil zituztela herrietan. Edo ez zuten jakingo hau: 'el requeté que daba los tiros de gracia era el coadjutor de la parroquia de Murchandi, Luis Fernández Magaña, administrador del conde de Rodezno, que se alistó voluntario desde los primeros momentos del alzamiento' (Navarra 1936. De la esperanza al terror, 2. tomoa, 231. orrial). Baina baten batzuk gauean hartu eta gehiago ez zirela agertzen herrian ikusten zuten apaizek. Eta Gomá Iruñan egon zen hilabete batzuetan. Ez zuten jakingo Espainako 24 probintzitan frontierik ez zegoen tokietan, 72527 afusilatu daudela izen eta abizenekin 1936ko uztailean hasita, 1944ra bitartean (Santos Juliá eta kolaboratzaileak, *Víctimas de la guerra civil*, 411-412 orrial.). Baina frontierik ez zegoen herrietan herritar batzuk desagertzen zirela. Eta afusilatzen zituztela batzuk ere entzungo zuten. Gainera eliz hierarkiaren dokumentu askok hizkuntza

abstraktuegia erabiltzen dute, eta bizitzan gertatzen denetik urruti xamarra. Eta eliz barrurantz duten autoritarismoa, ahaztu edo guztiz leuntzen dute, gizarteko benetako indarren aurrean. Eliz barruan gertatzen diren jokabideen berri izaten dute eta azkar erantzuten dute, batez ere irekiak edo ‘aurrera-tuak’ direnean. Baina gizarteko jokabideak ez dituzte hain erraz sumatzen, sustraietan eta dituzten ondorioetan. (Ikus J. I. GONZÁLEZ FAUS, *La autoridad de la verdad*, 2006, 203-208 orrial.)

Fidel García Martínez gotzainaren ibilbideko gertakizun nagusien laburpena ezagutu ondoren, maila guztietako kristauok galdera batzuk egin behar ditugu. Eta bestelako pertsona zintzoak ere bai, historia hau giza eskubideen barnean oso osorik dagolako. Zergatik ‘Junta de Metropolitanos’, Espainako gotzainen zuzendaritzat ez zuen ezertxo ere egin Fidelen izen onaren alde? Jakina da denak frankistak zirela. Garai baten Pérez Platero, Burgosko artzapezpikua ‘junta’ horretan partaide izan zen. Bere armarriko ikurritza hau zen: Pro Fide, rege et lege’. Fedearen, erregearen eta legearen alde. 1950an Fidelek bere seminarista bat Erromara bidali zuen ikasketak osatu et tituloak lortzeko. Seminarista hori Eduardo Martínez Somalo zen. Gero Batikanoko Estatuko idazkaritzan lan egin zuen, eta kardinal izendatu zuten. Joan Paulo IIak kamarlengo ere izendatu zuen. Eta behin meza ematen bere herrian aitortu zuen Joan Paulo IIak esan ziola, bera aita santu zen bitartean, zeukan karguan jarraituko zuela. Gero osasun arazo batengatik utzi zuen kargua. Erlijiosoen kongregazioaren buru ere izan zen eta historia ilunak ditu ordena batzuekin. Opuskoen laguna da, baina bera ez da Opuskoa. Zergatik ez zuen ezer ere egin bere gotzainaren izen ona defenditzeko? Geroagoko gotzain batzuk 1973ra artean zergatik ez zuten ezer egin Fidel Garcíaren izen onaren alde? Ixilpeko itunen bat zegoen frankisten eta gotzainen buruen artean, Arizmendik esaten duen

bezala? Ala pertsonaren eskubideak agintariari komeni zaionean defenditu behar dira bakarrik?

Elizako agintariiek berriz harri berdinean tropez egiten dute. Morone kardinalarekin eta Carranza kardinalarekin estropezuak izan zituzten. Beste batzuk ere egon dira elizaren historian: Mary Ward mojarren kasua; Bibliaren testu kritika, Jesusen Lagundiaren deseustapena etabar, (Ikus aipatutako *La autoridad de la verdad*, 103 etabar; 125 etabar; 152 etabar). Elizak tokian tokiko oroimena gorde eta zaindu behar du, egia, justicia eta kalteen ordaina oinarritzat hartuta. Eta hori egiten ez duen bitartean, ez dauka ahalmenik inori ezer eskatzeko.

Komunicabideak artikulotxoren bat edo beste idatzi zuten Arizmendiren liburua atera zenean. Baina ez dute erabiltzen neurri berdina elizaren kontra edo alde diren gaietan. Kontrakoak toki eta orrialde gehiago hartzen dute.

Fidelen kasuan laikoek atera dira bere defentsan. Bai kazetari batzuk, eta bai A. Arizmendi eta Patricio de Blas, argitaratutako datoekin. Garai berdintsuan M^a Antonia San Felipe Adanek tesi oso bat idatzi du Fidel Garcíari buruz eta bestelako lan batzuk ere. Eta herri xumeak ere bere izena jarri die plaza eta kale batzuei, alkateen eskutik.

J. M^a Etxebarria L.